BESTELAKO XEDAPENAK

JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

5238

EBAZPENA, 2011ko irailaren 30ekoa, Bulego Judizial eta Fiskalaren zuzendariarena, Bergarako barruti judizialeko Zerbitzu Erkide Prozesal Orokorra eta Betearazpenekoa funtzionamenduan jartzeko eguna ezartzeko dena.

Bergarako barruti judizialeko Zerbitzu Erkide Prozesal Orokorra eta Betearazpenekoa sortzen duen Justizia eta Herri Administrazioko sailburuaren 2011ko otsailaren 7ko Aginduaren azken xedapenetako lehenengoaren arabera, zerbitzu hori funtzionamenduan jarriko da behin barruti judizialeko langileen akoplatzeko prozesua bukatuta.

Akoplatzeko prozedura 2011ko irailaren 14ko Ebazpenaren bitartez itxi ondoren, honako hau,

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Bergarako barruti judizialaren Zerbitzu Erkide Prozesal Orokorra eta Betearazpenekoa funtzionamenduan jartzeko eguna 2011ko azaroaren 7a ezartzea.

Bigarrena.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Justiziako sailburuordeari, ebazpena Eusko Jaurlaritzaren Justiziako Administrazioaren intraneten argitaratu eta hilabeteko epean.

Gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu eta hiru hilabete igarota oraindik ez bada ezer ebatzi, errekurtsoa ez ezetsitzat hartuko da, eta administrazioarekiko auzietako bidea irekiko da.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko irailaren 30a.

Bulego Judizial eta Fiskalaren zuzendaria,
ROSA GÓMEZ ÁLVAREZ.